


AFRIKA'KO
IPUIN/ALEGIAK
ELEFANTEA
TA LAGUN
TXARRAK



Arrokeria ta norbere-
keria sarritan ikus-
ten dira gizartean eta
arro agertzen dira. Ipuin onetan
ikusiko dogu elefante errukiorra,
ontasuna eta alkar laguntzea ira-
kasten. Ikasi daigun.

Elefanteak, ieneak eta aramuak
bidea alkarregaz egitera urten
eben. Gaba eldu zanean afaldu eta
lo egiteko geratu ziran. -Nik uste
dot- esan eban ieneak- zuk elefan-
te, adiskide orrek, afaria gertatu
bear dozula, sendoena zara-ta.

-Bai- esan eban zur-aundiak-
bide luzea daukagu egiteko eta
guztiontzat izango da lana. Gaur
nik, biar aramuak eta etzi zuk. Bai?

Ori esanda, itzi ebazan lurrean
bere zorroak, atara ebazan lapikoa,
uruna eta saltzea. Ordu-erdi geroa-
go irurak afaltzen eben pozik su-
tondoan.

Goizean artu eben barriro bi-
dea eta luzaro ibilli ziran.

Gose apur bat daukat- esan
eban elefanteak- zuk, aramu orrek,
ekarri zendun bazkaltzeko janaria,
berbaz esan gendun lez.

Aramuak kendu ebazan bere
gaiñetik zorroak eta asi zan bazka-
ria gertatzen.

-Eta saltzea? Non dago sal-
tzea?- esan eban ieneak.

Aramuak zorroetara begiratu eban eta etxean itzi ebala esan eban. Orduan ieneak asarre berba egin eutson eta ez ebala balio ezertarako be eta obeto izango zala etxean bere eunen artean gelditu ba'litiz- esan eutson aramuari.

Elefanteak ori ikusita, errukiturik esan eban:

-Neuk artuko dot saltzearen ardurea eta zuek gertatu egizue aragia. Eta landan etxun zan.


Ordu-erdi geroago inea aldarrika asi zan:

-Dana dago gertu eta saltzea da bear dan bakarra-. Elefanteari esan eutson bere berbea bete ezin ba'dau obeto egingo ebala etxean lupetz-artearen jolasten geratu ba'litiz.

Barre egin eban elefante aundiak eta, bere oin lodi bat sutara luzatuta, koipe ona eta usaintsua emon eban. Aramuak, arroa zan lez, elefanteagana urreratuta bultzakada bategaz esan eutson:

-Zuk uste dozu zeu bear zaitudala saltzea egiteko?

Ori esan da bere oin mee bat urreratu eban surtara eta oiña erre egin zan. Ez eban gura bere makaltasuna aintzat artu eta beste oiña luzatu eban eta au eta gorputz osoa illentien artera jausi eta kizkaldu egin ziran.



-Ai ene, aramu adiskidea-,esan eban elefanteak- bere arrokeria izan dau galbide!

Irugarren egunean ienea isilik joian bidean eta ez eban esaten jateko ordua zanik, baiña elefanteak gogoratu eutson berak gertatu bear eba-la afaria.

-Parkatu egistazu,elefante jauna,- esan eban- baiña ain min aundia emon daust aramua ilteak ze, ez dot artu bear danik ezer be.

-Guzurti bat zara zu!Neuk ikusi zaitut bart dana zeuk jaten.Ez zendun gura afaria biontzat izatea?

Ori esanda, bere zorrotik uruna tea bear dan dana atera eban.

Emen dakazuz oneik! Gertatu egi-zu afaria ni uguztera, baiñatzera, noan artean.

Ieneak bere eskuetan ainbeste gauza ikusita, egin eban sua beingo baten, gertatu eban janaria eta, bere laguna biurtu baiño len, jan eta jan asi zan, urdailleko miñakaz lurrera jausi-arte.

Elefantea etorri zanean eta jasotakoa ikusi, laster esan eban:

-Arrokeria ta dana iruntzi-bearra, bizitza osoan dira kaltegarriak.

OLAZAR'tar Martin'ek+

